

atera gorria!



bbk=

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

www.bbkk.es

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

beirria

2005ko URTARRILA
73. zkia. DOHAIN

Santa Ana
salba dezagun

Santutxuko
merkatariak

Santutxu 27
urtez korrikan



Loly Lafuente

**"Gizarteak hezkuntzatik
bakarrik espero du
euskalduntzea"**


EUSKAL HERRIAK

KONSTITUZIO HONI

ez!



EZEZKOAREN ALDEKO EKIMENA - INICIATIVA POR EL NO - INITIATIVE POUR LE NON



| | | | |
|--|----|------------------------------------|----|
| ▶ Iritzia | 4 | ▶ Mahatsberriak | 20 |
| ▶ Santa Ana salba dezagun | 5 | ▶ Hezkuntza | 24 |
| ▶ Begoña 1863an | 8 | ▶ Koltza mendia | 27 |
| ▶ Santutxuko merkatariak: Asier Lopez .. | 10 | ▶ Zinema Begoñako Udaltzegan | 28 |
| ▶ Elkarrizketa: Loly Lafuente | 15 | ▶ Horoskopoa/Agenda | 30 |
| ▶ Inkesta | 19 | | |

Lehengunien leidu neuen kartela kursilloa eitten doa-zela Yoga ikasteko. Ta telefonoa koiu da geitu neuen apuntateko ze azkenokaz hotza sartu jaku baie ni burue berotute nabil da relajazinoa biher dot.

Ze, entre politikoak planak, referendunak, konstituzinoak da deskonstituzinoakaz, komertzioak rebajak da deskuentoak da domekan zabaldu ez zabaldu, da beste mile saltsakaz zoratu eitten da norbera: Da apuntau ein naz, da euskeraz dalez ondiñokarren trankilago joango naz, ze Berton leiduten dote-netik erderie ahiztu ein jat, da erderaz einezkero, pasako jatan jentie, euskeraz ez dakikxen lez, iguel marjinau eingo dotela da holangorik ez dot gure, ze jentie marjinate edukazino txarrekoa da, da ni betik ixen naz unaseñora.

Da aittu zelango ahalegine eitten dogun erderaz ez dakigunok geure artien gauzek eitteko inori moles-tau barik da zagata asko ein barik, da ganera gauze asko ez eitteko noseake... Da kexau, kexaten gara euskeraz gauze gitxi eitten direzela da ez dakit nok pelikulie euskeraz ein beharrekoan erderaz ein dabela, da euskeraz hobeto ein biher dala, da halangoak,.... Baie gehidxen bat eitten dogu gure artien zeozer esatierren, ze gero euskeraz pelikulie emoten danien edo euskeraz eitteko zeozer eitten danien gitxi joaten gara, ze iguel zagatie asko eingo dogu edo baten bat marjinau eingo dogu, da hamen pakie biher dogu ba, pakie da relajazinoa. Beraz, Yogan ez zaittezie apuntau asko, ze ezpabe-re, relajazinoa kakaztu eingo dogu. Ganera euske-raz bastaten eitten da eskolan.

Firmatue: Doña Mahatsalena

LUIS ETXEBARRIA PLAZAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Santutxu auzoan daukagu Luis Etxebarria plazatxua. Luis Etxebarria jaun hau 1878. urtean jaio zan Bilbon, hau da, Bigarren Karlistaldia amaitu eta handik urte bira.


Bada, plaza honek mugaide daukaz beste plaza bi, eta plaza honeek daukiez haren gurasoen izenak, horretara, bada, Luis Etxebarria plazaren ondoan dagoz Federiko Etxebarria eta Felipa Zurikaldai plazak, lehenengoa, haren aita, eta bigarrena, ama.

Goiko lerroaldean azaldu dan legez, andra-gizon horreen semea izan zan Luis Etxebarriak, eta bere gurasoen negozioei jarraitu eutsen. Jaun guren honek bizimodu bizkaitarraren alde bietan jo eban gailurra, eta norbanako legez, Bizkaiko industria hasibarrian hartu eban parte; horrezaz gainera, hainbat kargu izan eban Bizkaiko bizimodu publikoan: alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusia izan zan, bai eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Patronatuaren Batzako lehenengo lehendakaria izan zan. Egin-eginean bere, aurrezki kutxa ha 1921. urtean sortu zan.

tarraren alde bietan jo eban gailurra, eta norbanako legez, Bizkaiko industria hasibarrian hartu eban parte; horrezaz gainera, hainbat kargu izan eban Bizkaiko bizimodu publikoan: alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusia izan zan, bai eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Patronatuaren Batzako lehenengo lehendakaria izan zan. Egin-eginean bere, aurrezki kutxa ha 1921. urtean sortu zan.

GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea
ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.800

2005ko urtarrila - 73. zkia.

Boluetako Santa Anaren akabua

Otsailean hasiko da eraispena, adituek fabrika zaharra babesteko eskatu badute ere

Boluetako Santa Ana lantegiaren akabua ailega da. Datozen egunetan hasi behar dituzte lehenengo eraispenak. Fabrika zaharra behera botako dute eta haren lekuan etxeak egingo dituzte. Badira, hala ere, horma haien defentsan altxatu diren aholtsak, ondare industrialak galtzen utzi behar ote dugun galdezka. Berau dugu, hain zuzen ere, Begoñako elizate zaharreko ondare industrialeko azken arrasto garrantzitsua.

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok iragarri duenez, otsailean hasiko dira Boluetako Santa Ana fabrika behera botatzeko lehenengo lanak. Jakinaenez, lantegiaren orubean instituzioek 1.100 pisu eraikitze asmoa

daukate.

Eraispen lanok Begoñako elizate zaharreko azken ondare industrialak desagerraraziko dute. Hori gertatu orduko lehenengo aholtsak altxatu dira, zelan edo halan Boluetako Santa Ana fabrikaren alderdirik

baliotsuena jagoteko eskatuz. Izan ere, Jose Eugenio Villar, Industria Ondarearen aldeko elkartearen burua, jendaurrean agertu da Boluetako alderdi horrentzat babesa eskatzeko.


Zehatzago esanda, elkarteak

Eusko Jaurlaritzari eskari bi egin dizkio. Alde batetik, Boluetako Santa Ana orubea 'balizko alderdi arkeologikoa' izendatzeko eskatu du. Horrela, hala agerian nola lur azpian egon daitezkeen ondare guztiak topatzeko, baloratzeko eta babesteko aukera bermatu nahi dute. Bestetik, lantegiko zentral elektrikoaren eraikina (1896 urtekoa) babesteko eskatu dute, baita tximinia ere. Gainera, makinaria, argazkiak, burdinolako tresnak eta agiriak be gordetzeko eskakizuna eginda daude Industria Ondarearen aldeko elkarteak.

Eskariok orain dela lau hilabete bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen zuzendaritzari baina oraingoz ez dute ezelango erantzunik jaso. Hori ikusita eta etxeak egiteko lanak laster hastekoak ei direla jakinik, beldur dira ez ote den galduko Santa Anako ondare industrialia. "Beste askotan legez, gure ondarea jagoteko eta gordetzeko interesa baztertu egingo dutela ematen du", esan du Jose Eugenio Villarrek.

ENPRESA BAT HARTU
Orubide enpresa publikoak kudea-

tuko ditu Boluetako orubeok. Jose Eugenio Villarrek BERTONi jakinarazi dionez, Orubidek arkeologia lanetako enpresa bat kontratatu du orubeok 'garbitzen' dituzten bitartean arkeologi arrastorik ote dagoen arakatu ditzan. "Hori ez da bidea. Horrela txapuza bat egin liteke. Guk bilaketa arkeologikoa behar den moduan egiteko eskatzen dugu eta ez presaka eta garbiketa lanen menpe", zehaztu du Villarrek. "Gainera, zer edo zer topatu ezker, zer?", galdetu du. Izan ere, herri erakundeen asmoek ez dute leku askorik libre uzten. Esan legez,



Boluetako lantegiaren irudi zaharra. Ondoan, zubibarra.

Bost mendez burdina lantzen

Santa Anako fabrikarekin ibilbide luze bat amaituko da. Ehunka urte dira Bolueta siderurgiari lotuta dagoela. Lehenengo, ekonomia feudal baten barruan, burdinola eta errota egon ziren bertan, dorretxea eta ermita -Santa Ana- baten ondoan. Errotari Goikoerrota esaten zioten. Legizamon familiarenak izan ziren ondasun guztiok. Feudalismoa krisialdian murgildu zenean ola zaharren gainbehera geldiezina bilakatu zen. XIX. mendetik aurrera burdinolak ahaztuta geldituko dira eta industria feudalaren lekuan industria berria -

kapitalista, alegia- garatuko da. Horretan Santa Ana aitzindaria izan zen. 1841 urtean elkarte anonimo bat osatu zuten bertan burdin lantegi bat egiteko galdutako burdinolaren orde. Sei urte geroago, 1847an, labe garaia ezarri zuten bertan, Bizkaiko lehenengoa eta Euskal Herriko bigarrena. Teknologia berriak arrakasta handia eduki zuen eta, gorabehera askorekin bada ere, orduko lantegi hura XXI. mendera arte ailegatu da. Ehun eta berrogeita hamarretik gora urte egin ditu Boluetako siderurgiak ateak zarratu aurretik.

Eusko Jaurlaritzak 1.100 pisu egin gura ditu oraintsu arte Santa Ana eta Cilindros Bolueta lantegiak egondako orubeetan. Eremua Ibaizabal ibaiaren, Larreagaburu-Mirafloresetik behera Boluetara doan errepidearen eta Zubibarriren artean dago.

LABE GARAIAK

Zer ager liteke? Bada, adituok diotenez, orube horretan burdinola zaharraren arrastoak egon daitezke -ubideak, besteak beste- eta 1847ko labe garaienak ere. Horiek Bizkaian paratutako lehenengoak izan ziren. "Oraindik labeetako parte batzuk hor daudela uste dugu, besteak beste, bertako langile batzuek kontatu digutenaren arabera horrela delako", argitu digu Villarrek.

Ez da hori dena. "Fabrikako dokumentazioa, argazkiak, planoak eta bestelako gauzak salgai ei daude. Guk Orubideri abisua eman diogu baina badirudi belu gabiltzala", esan du Ondare Industrialaren aldeko elkarte lehendakariak.

Boluetako orube horretan azken bostehun urteotan Ibaizabaleko urez baliatu diren errotak eta burdinolak egon dira. Geroago, labe garaiak, ondoren siderurgia elektrikoak eta 1896an egindako zentral elektrikoak -'La Electra' konpainia- eta guzti. Urri-lek kalte handiak eragin bazituzten ere, aldaketak ere ekarri zituzten eta horren ondorioz, orube horietako itxurak eta funtzioak aldatuz joan dira, burdinaren industriarekiko lotura behin ere galdu barik. Orain arte.




Larreagaburu edo Miraflores gaineko ur gordailua

Galdu duguna

Zerrenda luzea osa daiteke azken urteotan gure bazterrotan desagertutako ondare industrialarekin. Larreagaburu (Miraflores) gaineko ur gordailua eta bere zerbitzu eraikina autobideari lekua egiteko bota zituzten. Pontoiko errota ere 1983ko uriolen ostean desagerrarazi zuten, haren arrastorik laga barik. Alboan Pontoiko okindegi zaharra dago eta hori bai, salbatu zen. Zaharberritu ondoren, Abusu ikastolaren habia da.

Salbeko garagardo lantegia zena ere induskailuen hatzaparretan galdu zen orain dela urte batzuk, ibaiaz beste aldean, Basurtuko Iparraldeko zerbeza fabrikari gertatu zitzaion legez. Eta Santa Ana lez siderurgia handi bat izan zen Etxebarria lantegiari tximinia bat baino ez zaio gelditu, parkearen erdian biluzik. Zerrenda horretan, datozen asteetan, beste izen bat egon daiteke, Santa Ana Boluetakoa.



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

BEGOÑA ETA EUSKERA

XIX. mendeko erdialdean Bizkaiko Aldundiak herrietako ondasunak neurtzeko agindu zuen. Herrietan udalek batzordeak osatu zituzten kalkuluak egiteko. Begoñako errepublikako zerrendan herriaren erradiografia antzeman dezakegu: Uribarri, Otxarkoaga eta Santutxuko baserriak, Atxuriko etxeak, Campo Volantineko jauregi burgesak eta han-hemenka barreiatutako fabrika eta tailerrak.

Begoñako errepublika 1863an



Txurdinagako Garaizar baserria zena


1863 urtea zen. Bizkaiko herri guztietan lez, Begoñan be batzordea osatu eta etxe zein negozioen errentak kalkulatu egin zituen. Herria lau auzotan banatu zuten: Uribarri -tartean Kristo kalea, Campo Volantin eta Tiboli-, Kaltzadak -tartean Iturribide eta Zabalbide kaleak eta Agirleta eta Zurbaran baserri auzoak-, Otxarkoaga eta Atxuri -Bolueta eta Santutxu bertan sartuta-.

Uribarri auzoan Larrazabal, Mendiaga, Zelemintxu, Goikoetxe -'Goicote' testuan-, Trauko, Enderika, Don Juantxu, Uregogorra, Pitxon eta Cruz de fierro etxeak aitatu zituzten. Errentarik altuena jauregiari

aitortu zioten -2.000 erreale-. Santa Ana kondearena zen. Hurrengo Enderika zen, 1.540 errealekin. Baserri horrek mende asko eman zituen Enderika familieren eskuetan. Orduan Pedro Enderikarena zen. Hala hemen nola Begoñako gainerako auzoetan ia baserri guztiak ugazabenak ziren. Baserritarrak, berriz, errenteroak.

Kristo kalean hiru etxe aitatu zituzten: Traukozarra -'trauzcozarra' idatzita- baserria, Quintana jauregia -3.650 errealeko errenta- eta Errekalde. Hortxe ere gas fabrika zegoen.

Campo Volantinen -Begoñako ibarrean hain



Uribarriko Urgogor baserria, Lezamako trenbide zaharra baino apur bat beherago

zuzen- bilbotar burgesen lehenengo etxeak eta lantegiak nahastean agertzen ziren. Zazpi urte geroago Bilbok beretzat hartu zuen Campo Volantin. Uribarri auzoko azken atala Tiboliri eskaini zioten. Han zeuden, besteak beste, Artasamina bekoa eta goikoa, Etxebarri eta Larretxe.

ITURRIBIDETIK

Hurrengo auzoa Kaltzadena izan zen. Lehenengo Iturribide goitik behera egin zuten, bertako etxeak eta fabrikak aitaututa. Azken horien artean bazen fundizio bat, igeltsu egiteko tailer bat, larru lantegi bi, dolare bat, ... Zabalbiden ehundegiak zeuden eta, jakina, Santa Klara komentua. Inguru horretan ere baserriak zeuden Zurbaran eta Agirleta -Santo Domingo- alderdian baina testuak ez digu haien izenen berri ematen. Pilar Sagarmingaren baserri bati 1.920 errealeko errenta aitortu zioten.

Hirugarren auzoan, Otxarkoagan, baserri izen asko utzi zituzten: Mazo, Batala, Etxezuri, Garaizar -Garaizar idatzita-, Errekako, Garate, Orueta, Artetxe, Narbide, Madariaga, ... Batzuek Otxarkoaga bertakoak -Larratundu, Ugarte, Larrakoetxe, ...- eta beste batzuk Txurdinagakoak -Artalandio, Zugetzu,...- eta Arbolan-

txa zein Azkaraikoak. Azken horietako askok zutunik dirau gaur egun be.

Atal honetan agertzen zaizkigu Orueta -erdaraz herradurako errebuelta esaten zitzaion alderdia- Mikoleta -Etxebarriko bidean- eta Birjinetxe. Azken hori, izenak berak dioenez, Ama Birjinaren aldeko kofradia batena zen.

FABRIKAKOETXEA

Laugarren auzoari Atxuri izena eman zioten eta gero zehaztu zuten bere edukia. Bertan banaketa bat egin zuten: "dentro de puertas" eta "fuera de puertas" hirigunea eta baserri aldean banatu nahian, antza. Hirian San Antonio, Gizakunde -Encarnación- eta Ollerías kaleak islatu zituzten. Baserri aldean, osteria, Bolueta. Azken horretan oso etxe gutxi agertu ziren euren izenekin: Zelaitxueta, Berdel, Ibarsusi -Ibarzuri idatzita- eta Morrotxikito -orain dela gutxi bota zutena-.

Badago berezitasunik, hala ere. Boluetako burdin fabrika aitatzerakoan -Santa Ana, hain zuzen-, eraikinari izen honi jarri zioten: 'fabricacoechea', fabrika-koetxea alegia. Herritarrek, itxura denez, horrela esaten zioten. Boluetako Santa Anaren errentatzat 14.000 erreale idatzi zuten.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

Asier Lopez:

"Santutxuko komertzioa famili negozioa da"

Auzo mahatsorri horretako merkatarik elkarrekin berrehun bazkide ditu



Badira urte bi Asier Lópezek Santutxu Merkatarien Elkartearen lehendakariaren ardura duena. Urte hauetan elkarrekin zenbait aldaketa eta hobekuntza egin ditu bere baitan eta horren berri eman digu. Era berean, azken bolada honetan hitzetik hortzera dabilzan zenbait gairi buruz ere berba egin du BERTONekin, jai egunetan zabalteko araudia edo merkatal zentro handiak kasu.

Testua: Nerea Aburto Argazkiak: Iñigo Azkona/BERTON

2003ko otsailan izendatu zintuzten Santutxuko Merkatarien Elkartearen lehendakari. Zer azpimarratu zenuke bi urte hauetan? Duela bi urte bazkide gutxi eta ilusio maila eskasa zuen elkarrekin bat ginen. Pertsona eskarmentudunei eta gazte sartu berrioi junta berria osotzea egokitu zitzaigun. Hori zorte handia izan zela uste dut, gauzak zelan egin behar ziren zekien jendea ideia berriak eta gogoak zituen jendea bildu zitzaiolako.

Zer egin zenuten? Elkartearen logotipoa berriztatzen hasi ginen lanean eta gaur egun darabilguna aukeratu genuen. Santutxu eta Komertzioak biltzen dituzten S-C hizkiak (gaztelaraz) guk elkarteari eman nahi genion bizitasuna eta mugimendua adierazten zuen logotipoan bildu genituen. Beste alde batetik orduan ere martxan zegoen elkarteko web orria berriztatzeke lanean hasi ginen eta gaur egun auzoko web orritzat hartzen duguna sortu genuen. Honetan auzoari buruzko hainbeste atal (historia, argazkiak, albisteak,...) jasotzen ditugu, ez elkarteari dagozkionak bakarrik. Gure erronka Interneten auzoko erreferentzia izatea zen eta oraindik hori bultzatu nahian dihardugu. Azkenik, baina oso garrantzitsutzat jotzen duguna,

na, bazkideen kopurua gehitzea lortu dugu, gaur egun 200 bazkide izatera heldu garelarik. Zenbaki majo bat da baina oraindik gehiago izatea gustatuko litzaiguke hala ere. Honen ondorioz, auzoko erabaki garrantzitsuak hartzen dituen barrutiko bileretan parte hartzen dugu.

Azken bolada honetan merkataritza aldarazi dute hainbeste gertakariak. Bat aipatzearen, zelan ikusten duzue merkatal gune handien azken urteetako 'inbasioa'? Beitu, holakoetan niri Santutxun denetarik daukagula esatea gustatzen zait. Arropa dendak, tabernak, iturginak, janari dendak, zapata dendak.... Santutxun denetarik dago, zinema bat izan ezik. Publizitate merkea ematen badu ere, argi esan dezakegu beste leku handiago batzuetan baino merkeago eta hurbilago daukagula hori dena. Orain dela gutxi zabaldu berri duten merkatal zentro batek egiten duen publizitate zuzenak dioen bezala: ez gaitezen tontoak izan eta hara arineketan joan aurretik pentsa dezagun. Hara heltzeko autoa hartu beharra dago, horrek suposatzen dituen haserrealdiekin trafikoa dela eta. Normalean ere, horietara produktu konkretu baten bila joaten gara eta, askotan, ez dugu aurkitzen propagandak agintzen zigun

eskaintza, agortu delako edo guk nahi genuen produktu hori dagoeneko prezio bikoitzean dagoelako. Beraz, azkenean benetan haserreturik amaitzen dugu. Zergatik, hori dena jasan aurretik, ez gara gure ondoko dendara hurbiltzen nahi dugun produktu hori daukaten ala ez eta zegan galdetzeraz? Agian denda txiki horietan merkeagoa izateaz gain beste mota bateko eskaintzak izan ditzakegu.

Merkatal gune erraldoien konpetentziari aurre egiteko merkataritxikiek baliabide urriak daukate? Zalantza barik. Auzoko komertzioak gara, gehienetan famili negozioak gara eta ez dugu gutunontzi guztietara helduko diren paper erraldoietarako aurrekontu nahikorik. Hor dago ezberdintasuna eta ez produktuen salneurrian, hornitzaileak denoi prezio berdinean saltzen baitzikigu jeneroak; gutxi zein asko erosi, berdina da.

Eta merkatarien elkarrekin ze baliabide dauka honi aurre egiteko? Gure auzoa familia komertzioez osaturik dago, ezin gara beste gune batzuetako elkarrekin konparatu. Haiek marka handiko enpresetako komertzioz beterik daude, horrek diru sarreretan suposatzen duen alde izugarriekin. Horregatik gure lan

esparrurik egokiena defentsarena da. Gure burua ezagutzera emateko ekintzak ere proposatzen ditugu baina batez ere gure bazkideen eskubideak defendatzen saiatzen gara eta ekintzak gure neurrian egiten ditugu.

Publizitatea eta propaganda interesatzen zaizkigu eta horretarako komunikabideekin kontaktuan izaten gara; aurten ere gure bazkideen komertzioen denden izenekin eta helbideekin egutegi bat kaleratu dugu dendei zein auzokideei banatzeko. Errege eguneko kalgata antolatzen dugu (Olentzeroa betidanik Santutxuko Famili Elkarteak antolatzen duenez), txistulariak ateratzen ditugu, lehiaketak...

Pil-pil dagoen beste gai bat jai egunetan zabalteko legea eta horri Eusko Jaurlaritzak eskaintako alternatiba da. Ze iritzi du elkarrekin horren inguruan?

Espainiako gorteetatik datorren zerbaitek da eta ez dago zer eginik. Gaur egun existitzen den legediak urteko edozein jai egunetan zabalte baimentzen du beraz gaur egun hori egonda ez bada jai egunetan zabalte ez dugu ulertzen lege berri horrek sortu duen ikara. Gu legea zelakoa den ikustearen aldekoak gara eta behin martxan jartzen denean komertzioek zabalte dutela ikusten dugunean, orduan borrokatu. Gaur egun irekitzeko askatasuna egonda jai egunetan ez bada zabalte, ez dut uste jendeak zabalteko zortzi jai egun markaturik dituen zabalduko duenik. Orain arte zabalteko beharrik ez badugu eduki bat-batean suertatuko zaigu? Inork ez gaitu zabalte behartuko eta Santutxun ez dut uste jendea zabalduko lukeenik legea onartzeko gero ere.

Baina beste alderdi batzuetako komertzioek zabalduko balute



horrek ez luke eraginik izango auzoan?

Noski baietz. Baina pentsa dezagun, astean sei egun zabaldu, oso ordu-tegi onak izanda (8ak aldera zarratzen dute denda gehienek), jendeak igandean erostera joateko beharra izango du? Ez dut uste. Horregatik, igandean zabaltearen aurka bagaude ere, momentuz ez dugu borrokatzeko asmorik. momentua heltzen denean ikusiko dugu.

Gaur egun auzoan igandean zabalte duten komertzioen kopura handitzen ari da etengabe. Zer deritoxue honi?

Bazar orientalak dira igandean zabalteko ohitura dutenak eta hau aipatzea arrazakeriatzat har daitekeen arren, ez du arrazakeriarekin zer ikusirik. Gure iritzi erregulatu beharreko zerbaitek baino ez da. Nik nire denda zabalteko ordutegi bat baldin badut besteek ere izan behar luketelako. Nire dendan produktu mota batzuk baino ezin badira saldu besteek ere baldintza hori bete beharko lukete edota nire denda irekitzeko eta ixteko egun batzuk badaude horiek ere bete ditzatela. Egia esan, ez dago hori arautzeko legerik indarrean gaur egun, baina gizarte arau batzuk badaude, denok onartutakoak. Noski, eurek nahi dutelako eta ahal dutelako zabalte dute, baina beste komertzio guztiek adostu-

tako arauak betetzea eskatzen dugu. **Eta hau konpontzeko bidean jarri ahal zarete?**

Bai, dagoeneko Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuan jarri gara eta konponbide bat aurkitu nahian gaude. Nahiz eta guri gustatu ez, legea euren alde dute eta egin dezakete. Arautze baten atzetik gabiltza, gauzak denontzat berdina izan daitezten.

Bestela, auzoan bada beste mota-tako arazorik edota hobetu beharreko arlorik?

Bai, argitasunarena. Kaleak ilun daude eta jende asko ez da auzora buelta bat ematera ateratzen ilun dagoelako. Egia da orain oso obra garrantzitsuak egiten ari direla baina guk, zinegotziarekin egoteko aukera dugun bakoitzean, beti berdina esaten dugu. Santutxuko kaleak ondo argiztatu ditzatela, eta ez bakarrik bide nagusienak, denak baik. Seguru gaude horrek azken boladan izugarri ugari diren lapurretak saihesten lagunduko lukeela.

Orain batzordea berriztatzeke haiteskundeak izango dituzuela, ze helburu izan beharko ditu hurrengo bi urteetan Santutxuko Merkatarien Elkartearen lehendakari zaren duenak?


Bazkide gehiago lortzea izan beharko litzateke helbururik garrantzitsuenak, Elkartearen indartsu izateko modu bakarra ahalik eta bazkide gehien izatea delako. Santutxun gaur egun 2000 komertzio inguru daude eta horietatik 200 bazkide dira. Kopuru garrantzitsua da baina gehiago izango bagina diru gehiago erabiliko genuke eta gauza gehiago egin ahal izango genituzke. Gure helbururik garrantzitsuenak, bestalde, dendariak defendatzen jarraitzea izan beharko litzateke: beste komertzioen aurrean, merkatal zentroen aurrean,... Hori baita gure bazkideekin dugun konpromisoa.

Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!



SEI IZAR HERRI KROSAK ADIN GUZTIETAKO KORRIKALARIAK BATU ZITUEN ERREGE EGUNEAN

SANTUTXU 27 URTEZ KORRIKAN


Urtero lez, aurtengoan ere errege egunean Sei Izar krosa egin zuten Santutxun. 27.a aurtengoa eta beti bezain jendetsua izan da. Urtarrilaren 6 goizean, adin guztietako korrikalariz eta animuak ematen gerturatu zen jendez bete zen auzoa. 700 bat korrikalarik hartu dute parte aurtengoan, urtero egon ohi direnen antzera.

Testua: Eneritz Ibarondo Argazkiak: Iñigo Azkona




Guillermo Arnedo


goa, neskatoen artean berriz, Irene Santamaria Olivera. 11 eta 14 urte artekoen sailkapenari dagokionean, Artzai Beranoagirre eta Leire Huarte Plaza izan ziren aurrenak. 11:00ak inguru ziren helduen txanda



Inma Rafael




iritsi zenean. 14 urtetik gorakoek hartzen dute parte honetan. 14 eta 40 urte artekoek, 40 eta 60 artekoek, eta 60 urtetik gorakoek. Azken hauek jaso zituzten batez ere ikusleen txaloak.



Lehenengo multzoan eta emakumeei dagokienean, Inma Rafael izan zen helmugara iristen aurrena. Erraz garaitu zuen honek nesken marka, izan ere, hiru minutu itxaron behar izan ziren bigarena, Mercedes Cura, heldu zen arte. Mutilei dagokienean Guillermo Arnedo izan zen lehenengoa, eta bide batez sailkapen orokorrean txapelduna. Honen ostean, 7 segundutara bakarrik heldu zen Mikel Fernandez de Ganboa. 40-60 urte artekoen sailkapenari dagokionean, Inma Ruiz eta Mari Carmen Garcia izan ziren aurrenak emakumeen artean, eta Eduardo Hernando eta Jesus Melendez gizezkoen artean. Nahiko orekatuta ibili ziren hauek, lehenengo eta bigarrenaren artean minutu bakarreko diferentzia izan zuten. Esan bezala, 60 urtetik gorakoak izan


DOAKO BAKARRA
27 urte daramatza Santutxuko Fami-

lia Elkarteak hainbat auzotarren laguntzaz Sei izar krosa antolatzen, nahiz eta oraingo izena duela urte batzuk Balaitusen hildako auzoko sei gazteen omenez jarri zioten, aurretik Santutxuko Herri krosa lez zen eza-guna. Oso harrera ona du urtero krosak, eta antolatzaileen ustetan oso garrantzitsua da azpimarratzea momentu honetan Bizkaian dagoen doako kros bakarra dela. Urteroko zita bat da Sei izar krosa bai auzotarrontzat eta baita kanpoko hainbat jenderentzat ere.



Bilboko euskaldunon ondarea CDan eta liburuan

Iñaki Gaminde
Bilbotarron euskararen zuzuan




Liburudendatan eta
Txurdinagako AEKn salgai



Loly Lafuente

“Gizarteak hezkuntzatik bakarrik espero du euskalduntzea”



Lezamako Trenbide Zaharra auzokoa da Loly Lafuente, Artxandako hegikoa. Irakaslea ogibidez, Uretamendin, Errigoitin eta Basaurin ibili zen eskolak ematen. Gaur egun Txurdinagako Berritzeguneko euskararen normalkuntzarako teknikaria da. Bestela esanda, Salbetik hasita eta Otxarkoagaraino, ikastetxe guztietan euskara normaltzeko egiten diren ahaleginen gainean dabil, sakatzen eta laguntzen. Euskara gure eskoletan zertan den kontatu digu.

*Testua: Hektor Orteza
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Txurdinagako Berritzeguneko normalkuntza teknikaria zara. Zein da zure lan eremua?

Bilbon Berritzegune bi daude. Bata gurea eta bestea Abandokoa. Gureak hartzen du Begoñako errepublika zaharra osorik, Zazpi Kaleak eta Abusu.

Zein da funtsean zure lana?

Euskararen normalkuntzarako proiektuak daukaten ikastetxeak koordinatzea eta proiektu horiek egiteko laguntza ematea.

Ume mahatsorriak ze euskara maila daukaten jakiterik daukazu?

Lehenengo eta behin, ume mahatsorri asko kanpora doa ikastera. Bestetik, datu orokorrak ez ditugu gehiegi erabiltzen. Ikastetxez ikastetxe ibiltzen gara, gehien bat, datuei dagokienez. Hor, alde batetik, erreferente bat izan daiteke normalkuntza proiektua daukaten ikastetxeak, bertan nolabait bermatzen delako euskaraz egiteko borondatea. Baina horrek ez du esan nahi normalkuntza proiekturik ez daukatenei borondate hori falta zaienik. Beste aldetik, datu 'objektibo' B eta D erduetan matrikulatuta daudenak izan daiteke. Horiek gero eta gehiago dira, A eredu erdalduneko ikastetxeak gero eta gutxiago diren bitartean.

Alderik dago adinen edo auzoen artean?

Ikastetxeen historiak asko markatzen du. Txurdinagan, adibidez, euskararen arloan Gabriel Aresti institutua erreferente bat izan da. Lehen Hezkuntzan nahikoa orokorra da B edo D eredu -ia ikastetxe guztietan daude- eta horren ondorioz euskara karteletan agertzea edo euskaraz egitea gauza normala da. Berriz, institutu batera joaten bazara eta ikasleei euskaraz egiten badiezu euskara irakaslea izango zarela pentsatuko dute, etapa horretan ikasle horien errepresentazioa horixe delako. Institutuetan daukagun erronka erabilerarena da.

Adituok horixe esaten zabilzate azkenaldion. Gurean erronka ez

da gaur egun umeak euskalduntzea, hizkuntzaren erabilera sustatzea baino. Hori orokorra da hemen?


Bai. Euskaraz irakasten hasi ginean behin eta berriro ibiltzen ginen justifikatzen posiblea zela euskaraz irakastea. Horretarako irakasleen arteko eztabaidak egin genituen, gurasoentzako hitzaldiak, ... erakusteko umeentzat ez zela kaltegarria izango. Gaur egun inork ez du holako aitzakiarik jartzen. Kezka da arlo akademikotik aparte euskaraz egitea. Eta begi bistakoa da hori irakaslearen esparrutik apur bat kanpo dagoela. Hala ere, irakaslearen ardura da orain, ardura pertsonala esan nahi dut. Gizarteak euskararen garapena hezkuntzatik bakarrik espero du, gizartea euskalduntzeko prozesua beti izaten delako kontu anekdotiko bat. Ikasleak irakaskuntza osoa euskaraz egiteko ahalegina egiten dugu baina gero ikasle horiek lanera doaz enpresetara eta han ez dago euskaraz egiterik. Irakasleak kezkatuta daude eta pen-tsatzan dute erlatibizatu behar dutela eta euren indarrak euskaraz ondo irakastera dedikatu.

Ondo dakienak ondo egin dezake gero...

Klaro. Txepetxek aitatzen zituen hiru zutabeak -motibazioa, ezagutza eta erabilera- ezin dira aparte hartu, elkartuta daude. Baina hezkuntzan ezagutzari eman behar zaio lehentasuna. Badakigu motibazioa ere ezinbestekoa dena, zer edo zer ikasteko motibazioa piztu behar dena. Eta ikasitakoa aplikatu behar dena. Euskararen kasuan aplikazioa ez da gertatzen bakarrik eskolan, bizitza osoan baizik.

Horretan eragina edukiko dute, besteak beste, normalkuntza planek. Zein da gaur egun egoera?

Ikastetxe kopuruaren aldetik, ondo. Ez daude guztiak eta badira ere normalkuntza proiektu barik ere aurre-rapausoak ematen ari direnak. Gertatzen dena da normalkuntza proiektu batek asko eskatzen duela, arlo akademikotik aparte helburu batzuk markatu behar dira eta existentzia maila altua daukate. Kostata



lortzen da ikastetxe bat normalkuntza proiektu batean sartzea. Ez da pertsona baten edo batzuen erabakia, ikastetxearen proiektua da, errotuta dago ikastetxearen plangintzan. Nahikoa serioa da.

Euskaraz funtzionatzen duten ikastetxerik badago?

Hortik hurbil daudenak bai. Ikastolak edo ikastola izateko asmoaz jaiotakoak. D eredukoak dira hurbiltzen direnak. Baina normalkuntza proiektuan erabilera ere hartzen badugu, gizarte honetan normalizazioa noiz helduko gara? Ikastetxe batzuek dokumentazio guztia, batzarrak, ... dena euskaraz egiten

dute. Baina bertako 'produktuak' ikasleak dira eta haien erabileran ez daude hain seguru.

Ikaslearen artean ere gorabeherak izango dira belaunaldien artean...

Bai. Ikastetxetan helburu berberak ipinita urteen arabera erantzunak diferentek izaten dira. Eta gero neurtzeko tresnak ere fintzen ari gara, baina tresnak falta dira jakiteko batzuetan daukaten pertzepzio hori -erabileran atzera egiten ari dela- egia den ala ez.

Ikaslearen adinetan badago une kritikorik?

Orokorrean irakasleek diote ume txikiek erabilera normala egiten dutela, nahiz eta gutxiago jakin. Baina adinean gora joan ahala, gero eta arazo gehiago dago euskaraz egiteko. Lehen Hezkuntzako irakasleek esaten dute hirugarren zikloan, 5. eta 6. mailan, ahalegin bereziak egin behar dituztela erabilera sustatzeko. Edo igual esparruen arabera, gelan bai baina jolastokian ez. Institutuetan gehiago eskapatzen zaie. Bestalde, ikastetxe batean euskara normaltzeko denon inplikazioa behar da eta kolektibo oso handiak izaten dira. Ikastetxearen proiektuak ondo sustraituta eta konpartituta behar du izan. Batzuetan irakasle-

rian aldaketak egitea edo dezepzio-rik gertatzen bada, igarri egiten da.

Normalkuntza proiektuok epe jakin bat eduki ohi dute?

Proiektu guztiek epe bat eduki beharko lukete. 1996an hasi ginen eta proiektuen teorizazioa egiterakoan esaten genuen: 'normalkuntzari epea jartzea oso zaila da'. Hala ere, helburuak markatzeko komenigarria da epe bat jartzea. Zazpi urteko epeak ipinita, hasieratik dauden ikastetxeetan epea bete da eta batzuek esaten digute: 'uste dut okerrago gaudela'. Baina alor horretan eragingarriak izateko tresna egokiak behar ditugu eta orain-



edo jolastorduan beste irakasleekin,... Hori gogorra da eta uste dut ez dugula baloratzen. Presio hori eduki behar dugu, euskara normalduko bada, baina ez bakarrik irakasleok.

Eta guraso askok seme-alabak B edo D ereduan sartuta nahikoa egin dutela uste dute...

Bai. Atzo bertan batzar batean galdera bat zen gurasoei zelan jakinarazi ikastea baino zerbait gehiago dela euskara. Aita eta amak oso inportanteak dira baina zaila

dik erabilerara neurtzeko hobetu behar ditugu. Horretan ari gara. Normalkuntza proiektuak egiten hasten direnei esaten diegu epe laburragoak ipintzeko. Eta tresna horiek zelan erantzuten duten ikusten dugu. Kontuan izan behar dugu proiektua ebaluatzerakoan baloratzen dugu agerpena eta ezagutza batetik eta bestetik erabilerara. Ikastetxe batean ikasleak aldatu egiten dira. Orain dela bost urte pasatutako testa eta oraingoa aldatu dira baina aldaketa horri igual irakasleen aldaketari baino ez dagokio. Oso zaila da hori neurtzen. Dokumentazioa edo paisaia linguistikoa oso errazak dira ikusteko baina euskararen erabilerarako oso tresna onak behar ditugu: ikerketa fidagarriak. Baina noiz amaituko da normalkuntza? Nork daki !

da gurasoen parte hartzea eta konpromisoa sakatzea gizartearen, orokorrean, parte hartzea oso baxua denean. Plano teorikoan, proiektua ikastetxe osoarena bada, gurasoen arloaz gurasoak eurak arduratu beharko liriateke.

Atzerritarren seme-alabak euskarara ekartzeko zer egin ahal da?

Hezkuntza sailetik gai hori oso kontuan hartuta dago. Badaude baliabideak ikasle horiei euskara errazteko. Baina ez da normalkuntza arlotik bakarrik egiten. Badira ikastetxeak normalkuntza proiektuetan sartuta daudenak eta horrelako ikasle kopuru handi bat daukatenak.

Zelan egongo gara hamar urte barru?

Ni jubilatuta, kar, kar. Nork esango zidan irakasle hasi nintzenez handik hamar urtera euskaraz irakatsiko nuela? Hasi orduko erdaldun hutsa nintzen. Geroago ikasi nuen. Horrelako aldaketa gertatzen bada hamar urtetan, zer ez ote da gertatuko datozen hamar urteotan? Hezkuntzan bilakaera honakoa izan da: hizkuntza bakar bat, gero elebitasuna, gero hirugarren hizkuntzaren sarrera eta ondoren eleaniztasuna. Herri honetan euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuta egotea gustatuko litzaidake. Baina hortik joango dira gauzak? Auskalo.

Zortzi galdera labur

*Film bat: 'Los hermanos Marx en el Oeste'.
Liburu bat: 'Soinujolearen semea'.
Kantu bat: Mikel Urdangarinen 'Munduari begiratzeko'.
Janari bat: Txarrikeria guztiak.*

*Kirol bat: Paseatzea. Ez naiz kirolzalea.
Leku bat: Iluntzea ikusteko ikuspegi zabala ematen duena.
Mendia ala hondartza: Biak.
Amets bat: Bizi izatea.*

Zer pentsatzen duzu otsailaren 20an bozkatuko den Europako Konstituzioari buruz?




EIDER (ZURBARAN)
EZ DAKIT EZER ERE. TELEBISTAN ARTIKULUREN BAT AZALTZEN DUTELA IKUSI DUT. DENA DELA, LEGE GEHIAGOREKIN TRABA GEHIAGO EGONGO DIRA.

SARA (ZURBARANBARRI)
EZ DAKIT EZER ERE, BAINA SUSMOA DAUKAT LANGILEOK GEHIAGO IZORRATZEKO IZANGO DELA.




JUDITH (BARTZELONA)
ESKUMAKO PROIEKTUA ESKUMAKO JENDEARENZAT. EZ DA PROIEKTU SOZIALA, EZ DA JENDE XUMEARENZAKO.




ANDER (GALDAKAO)
USTE DOT ERABILTZEN DABILTZALA JENDEA BAIETZA EMOTEKO, TELEBISTAREN BITARTEZ. NI EZ NAGO ADOS, KONSTITUZINOA EZ DAGOLAKO EGINA JENDEARENZAKO, ESTADUENTZAKO BAINO.




PATRI (SANTUTXU)
IRUZUR BAT DELA. DEFIZIT DEMOKRATIKO HANDIA DAUKA. IRIZPIDE EKONOMIKOEK DAUKATE LEHENTASUNA IRIZPIDE SOZIALEN GAINETIK, ETA HORTIK BESTE GUZTIA ONDORIOZTATZEN DA.



MANU (ZURBARANBARRI)
ADIERAZGARRIA DA IA PARTIDU POLITIKO GEHIENAK ADOS EGOTEA HORREKIN, BAI EZKERREKOAK BAI ESKUMAKOAK. DANA DALA, EZ DAGO INFORMAZIO NAHIKORIK, ETA HORI NAHITA EGIN DUTE.



JOSE ANTONIO (SANTUTXU)
EZ DUT IRAKURRI ERE EGIN. HANDI-MANDIEN ONERAKO BESTERIK EZ DA. ESTATU EZ DIREN HERRIEI, NAZIO TXIKI ETA LANGILEEI BIDEAK IXTEN DIZKIETELA DERITZOT.



MARTIN (SANTUTXU)
ASKO EZ DOT IRAKURRI, BAINA ARGI DAGO KAPITAL HANDIAK ASMATUTAKO GAUZA BAT DALA, ETA DIRUA EURENGANA EROATEKO DALA. KAPITALAK DIRUA IRABAZTEKO ETA AMERIKARREI KONPETENTZIA EGITEKO EGINA DAGO.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak


Metroa ez da Boluetan akabatzen

Urtarriletik Etxebarri da muturreko geltokia, Ibaizabal gainetik pasatuta

Urtarrilak aldaketa handia ekarri dio metroari. 1997tik metroaren azken geltokia Bolueta zen, tren guztien azken pausalekua. Orain, oster, Urtarriletik Etxebarri da muturreko geltokia, Ibaizabal gainetik pasatuta

Testua: **J. Larrazabal**
Argazkiak: **BERTON**

Boluetakoak geltoki garrantzitsua izaten jarraituko du, duda barik, bertan baitago lotura zuzena Eusko Treneko Durango eta Bermeorako zerbitzuekin. Baina ez da azkena izango. Metroak akabua Etxebarrin dauka orain. Horretarako zubi dotore bat altzarazi dute Ibaizabal gainean Bolueta eta Zubialde auzoen artean. Aurrerago beste bat egin behar izan dute, Etxebarrira iritsi baino lehen, inguru horretan Ibaizabal sigi-saga dabil eta. Izan ere, azken horrek zer esana eman du. Orain dela hilabete batzuk behera jausi zen, obrak amaitzeko oraindik nahikoa falta zela. Arrazoiak aztertu eta konponbidea topatu ostean, metroko zubi hori berregiten hasi ziren.



geltokian. Eguneko 7.000 lagunetik gora, hain zuzen. Beraz, bi geltoki berrien artean astebetean 69.000 bidaiari batu dituzte.

Ibilbidea luzatuta, mahatsorriok askoz errazago daukagu Etxebarrira ailegatzea, metroan bi edo hiru minutuko bidaia izango da eta. Sestaora ere, hoguei minututan egin daiteke joana, errepide bete kotxeak saihestuta.

ALDAKETAK

Metroa 1995an zabaldu zen. Harrez gero hiru luzapen egin zaizkio. Lehenengoak metroa Begoñako errepublika zaharrera ekarri zuen, Santutxu, Basarrate eta Boluetako geltokiekin. Gainera, Mallonara ere igogailua jarri zuten Zazpi Kaleetako geltokitik. Jakina, luzapenak bidaiari gehiago ekarri zituen. 1997an metroak hamar milioi bidaiari irabazi zituen, 31 milioietara ailegatuta.

Bigarren aldaketa be handia izan zen, metroa Ezkeraldera zabaldu zen eta. Barakaldon lau geltoki berri atondu zituzten -Gurutzeta, Barakaldo, Bagatza eta Antsio- eta Sestaon amaitzen zen, Urbinagan hain zuzen. Hala ere, Urbinagakoa Sestaoko hirigunetik urrun dagoenez erabiltzaile gutxi eduki ditu.

Edozelan be, metroaren bidaiari kopuruak etengabe egin du gora. Azken datua 2004koa da, jakina. Iaz 73 milioi lagunek erabili zuten lur azpiko trenbidea. Ez da kopuru makala!

HARRERA ONA

Zerbitzu berriak harrera beroa jaso du. Herritar asko dira hala Etxebarrira nola Sestaora joan-etorriak egiteko metroa erabiltzekoak. Geltoki berri biak erabiltzen hasi eta astebetera emaitzak ikusgarriak ziren. Metroko arduradunek jakinarazi dutenez, lehenengo aste horretan Etxebarririko geltokian 14.200 bidaiari zenbatu zituzten, eguneko 2.000 edo. Gainera, Etxebarrin metroa erabiltzeko ia mila karneta egin dituzte.

Sestaoren kasuan, lehenengo aste horretan -urtarrilaren 10tik 17ra alegia- 47.700 bidaiari zenbatu zituzten

Sorgintxulora sartu ziren seigarren urteurrenean

Urtarrilaren 5ean sei gaztek lokala 'okupatu' zuten

Sorgintxulo ez da zorion agur barik gelditu bere seigarren urtebetetzean. Sei gazte Bilboko Udalak zarratutako lokalean sartu ziren urtarrilaren 5ean eta bertan

egon ziren ertzainek ateratzera behartu zituzten arte. Bestalde, gazteok Gorbeia-ko aterpetxe bat ere auzoarentzat eskatu dute.

Testua: **Eneritz Ibarrodo**
Argazkiak: **BERTON**

Arratsaldeko zazpiak hamar gutxi aldera, gaztetxeko bigarren solairutik sei gazte atera ziren leihora. Horrela, gaztetxeko kideak lokala berriro okupatzea lortu zutela ikusi zuten auzotarrek. Abenduaren 16an hustu zuten udaltzain eta ertzainek Sorgintxulo Bilboko Udalaren aginduz, eta harrez gero lokalaren inguruetan 24 orduko zaintza dago.

Hala ere, urteurrenean, erregeen desfilea pasatu zenean sei neska barrura sartu ziren. Leihotik atera ziren arte, inguruetako polizia ez ziren konturatu ere egin. Hori ikusi eta Ertzaintzaren furgonetak azaldu ziren eta gaztetxe barruan gazteen bila zebiltzala ikusi zen. Gaueko hamar eta erdiak aldera eman zuten amaitutzat okupazioa, barruko gazteak atera eta identifikatu eta gero.

Bitartean, Sorgintxulo inguruetan auzokide ugari batu ziren gaztetxearen defentsan. Tentsio handiko uneak izan ziren baina ez zen istilurik egon.

Ekintza hori ez zen, ordea, egun horretarako prestatuta zeukaten bakarra. Egunean zehar ume jolasak egin zituzten, eta arratsalde partean trikitalariak auzoan zehar ibili ziren. Ume jolasetan hainbat hurrek Sorgintxulo zorientzen zuten irudiak egin zituzten.

GORBEIAKO ATERPEA

Urte amaieran, beste aldetik, auzoko hainbat gaztek bi gau eman zituzten auzotarrek Gorbeian auzolanean erai-ki zuten aterpean. Gaztetxeko ar-bera, aterpeak Sorgintxuloren antzeko

egoera pairatu du. Auzotarrek eraikitakoak dira biak xede sozial eta kulturaletarako, eta biak apaiz karmeldarrek hustu dituzte.

Sorgintxuloko gazteek aterpearen kudeaketan parte hartzeko auzokideekin hitz egin nahi dute. Hauen arabera, Santutxuko mendi taldea da ardura hau bere gain hartzeko talderik egokiena. Hala ere, karmeldarrek bermatzen ez duten bitartean, aterpea berriro okupatzea erabaki dute.




Gazteak Gorbeian

EPAIKETA ATZERATUTA

Urriaren 13an BOMeko (Bilboko okupazioaren mugimendua) 20 bat kidek Udaletxeko balkoia okupatu zuten Sorgintxuloren defentsan. Epaiketa hilaren 18an zen egitekoa baina

ateratu egin dute. Izan ere, desobedientzia falta gisa izan behar zuena delitu gisa epaitzea aztertzen ari da orain epailea, orain fiskalak desordena publikoen delitutzat hartzea eskatu du eta.



GABRIEL ARESTI BHI

DBH - BATXILERGOA B - D ereduak

- Jantokia
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Kultur ekintzak
- Kirol instalazioak
- Orientazio zerbitzua

Bilbaon 25 urtean Euskaraz irakasten aitzindari

Artalendio, 5. 48004 TXURDINAGA-BILBAO
Tfnok.: 94 412 75 00 - 94 412 74 12 Faxa: 94 411 33 37
E-mail: gabriel.aresti@bezeroak.euskaltel.es

URTARRILA/OTSAILA (HEGAZKINA + HOTELA)

| | |
|--------------|----------|
| Gran Canaria | 295 Euro |
| Tenerife | 278 Euro |
| Lanzarote | 410 Euro |
| Maroko | 215 Euro |
| Mallorca | 188 Euro |

Izargi Bidaiak
Iturrigaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax. 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Etxea
Arzuaga 1 Santutxu

ADI
ASESORIA FISCAL, CONTABLE, LABORAL, MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

Aurten hasiko dituzte Zumalakarregi eta Ravel hiri barruko etorbide bihurtzeko lanak

Bizkaiko Foru Aldundiak aurten hasiko ditu Zumalakarregi eta Maurice Ravel etorbideak gaur egungo autobia itxura galdu eta hiri barruko etorbide bihurtzeko obrak. Proiektuak Salbetik Ibarsusi arteko tartea itxuraldatuko du eta, etapaka egingo denez, bost urte beharko ditu amaitu aurretik.

Izan, errepidea da Ibarsusitik Salberainoko 'etorbide' hori. Izena ere 'badu, BI-625 hain zuzen ere, eta foru errepidea da, Bizkaiko Foru Aldundiarena alegia. Orain asko ez dela semaforo bakozen eta, ondorioz, autoek behin ere gelditu barik egiten Ibarsusitik Errekalde etorbidera arteko bidea.



koak dira. Oraingo autobia semaforoz, pasabidez, zuhaitzez eta pasealekuz hornituko dute. Horrela, oinez dabiltzanei erraztasunak emango zaizkie eta autoek, derrigorrez, Bilbo barruko beste edozein kaletatik bezalaxe ibili beharko dute. Guztira, obra hauek bost milioi euroko inbertsioa eskatuko ei dute.

LUR AZPIKOA, BAZTERTUTA

abiadaz ibiltzen zirelako. Horren ondorio zuzena izan ziren orduan geratutako istripuak. Begoñan auzoek protestaldiak egin zituzten, batez ere andre bat kotxe batek harrapatuta hil ostean.

Hurrengo urratsa aurten da ematekoa. Bizkaiko Foru Aldundiak 2005 urterako onartutako aurrekontuetan Zumalakarregi hiri barruko etorbide gisa atontzeko lanen hasiera agertzen da. Itxura guztien arabera, urte akabuan hasiko dira lanok. Aurrekari moduan har daitezke abenduan amaitutako Begoñako tunelaren zaharberitzeko obrak.

Lanok, esan legez, zatika egingo dira eta bost urtetan zehar banatze-

Erabaki hori hartu baino lehen, bestelako aukerak ere aztertu izan dituzte Bizkaiko Foru Aldundian eta Bilboko Udalean. Besteak beste, Bilboko Plan Nagusia egin zenean (1992an) Uribarriko eta Begoñako zatiak lur azpian sartzeko aukerak aztertu eta baztertu zituzten. Geroago Jose Maria Gorordok lehenengo eta PPK geroago antzeko eskariak egin dituzte.

Azkenean Bizkaiko Foru Aldundiak beste ikerketa bat egin zuen eta behin betiko aukera hori baztertu zuen, lar garestia izango zelakoan. Horren ordez, errepidea hiri barruko kale gisa atontzeko proposamena onartu zuten eta, ondorioz, horixe da gaur egun dagoen asmoa.



ELURRA BISITARI

Urtarrilaren azken astea elurrari lotuta egon da gurean. Lehenengo egunetan telebistek eta bestelako hedabide askok itzela zetorrela iragarri zuten. Gero etorri, etorri zen, elurra, neguan gaudelako, baina beste barik. Egia da leia eta

agertu zela Artxanda gainean eta gure etxeetako teilatuak zuriz jantzi zirela. Baina eskandalua bota behar zuena eta itzela izan behar zena azkenean neguko elurte bat baino ez zen izan. Sasoian, sasoikoa.

Europari baietz esateko... BOZKATU EZ!

- * Eskubide Sozialak baztertzen dituelako
- * Euskararen ofizialtasuna ez duelako bermatzen
- * Herrien Europaren aurka jotzen duelako
- * Eskuinetik eraikitzen duelako Europa

OTAN-i ezetz esan genion,
ESTATUEN EUROPA NEOLIBERAL HONI EZETZ
esango diogu



BESTE MODUKO EUROPA BAT POSIBLE DELAKO

urretxindorra
megadenda **9'30etatik 20'00etara**

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo) urretxindorra@megadenda.com
Tfnoa: 94 4240228 www.megadenda.com

EUSKAL ESKOLA

iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet,9 Santutxu Arbideta,21 Txurdinaga
4731460 4117656

AURREMATRIKULAZIO KANPAINA OTSAILAREN BIGARREN ERDIAN ZABALDUKO DUTE IKASTETXEETAN

Urtero legez, otsaila heldu eta aurrematrikula kanpainak heldu dira ikastetxeetara. Sare publikoan, datorren ikasturtean umeak eskoletan apuntatzeko epea hilaren 14tik 25era zabalduko da. Amek eta aitek erabaki garrantzitsu bat hartu behar dute. Seme-alabok non eta zelan ikasiko duten.

Testua: L. Albarez
Argazkiak: BERTON



Datorren irailean lehenengoz eskolara hasi behar duten umeen aita-amek otsailaren erdian eman beharko dute izena gustuko ikastetxean. Erabaki larria da, eskaintza zabala eta benetan anitza dago eta. Gainera, umeen bilakaeran ondorio handiak edukiko ditu orain egin beharreko aukera horrek.

Gurean badago zer hautatu, hala sare publikoan nola pribatuan, edo arlo erlijioetsuan zein hizkuntza kontuetan. Guraso batzuentzat eskola etxetik zenbat eta hurrago orduan eta aukera hobeago da. Beste ba-

tzuek, oster, ez daukate problemarik seme-alabak urrutiko ikastetxe batera bidaltzeko baldin eta bertan gustuko hezkuntza eredu topatzen badute.

Sare publikoak auzo guztietan dauka eskaintza nahikoa zabala. Ikastetxe erlijioetsuak ere alderdi gehienetan daude. Ikastolak ere ez dira falta, ezta kooperatibak ere. Baina beharbada kasurik bitxiena Txurdinagako alemaniar ikastetxearena izango da, bertan alemaneraz ematen baitituzte eskolak.

Proiektu pedagogikoak, hurbiltasuna, hizkuntza,

erlijioa, ikastetxearen baliabideak, ... horra hor aita-ama askok balantzan jarri beharko dituzten irizpideak.

EUSKARA

Gaur egun hala sare publikoan nola pribatuan ikastetxe gehienek B edo D ereduak eskaintzen dituzte. B

eredua elebiduna da, euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte eskolak emateko. D eredu euskalduna da, euskaraz ematen baitira eskola guztiak. A eredu erdalduna, oster, bazterreko bihurtzen ari da azken urteotan eta gero eta ikastetxe gutxiagotan erabiltzen dute. Eusko Jaurlaritzako arduradunek eurek onartu dute eredu horrekin ume gehienak eskolatik irteteen ez direla euskaraz egiteko gauza.

Elkarte euskaltzaleek D eredu gomendatzen diete seme-alabek euskaraz ganoraz egin dezaten nahi duten guraso guztiei. Gomendio hori are biziago egingen dute Bilbo bezalako hiri erdaldundu batean. Inguru erdaldunaren indarrari aurre egiteko murgiltze sistemak (D eredu) ezinbestekoak direlakoan daude.

Orain dela hilabete batzuk 'Eskolak euskaldundu behar du' jarri zuten martxan Euskal Herrian Euskarazek (EHE), Kontseiluak, AEK-k, EHIGE gurasoen elkarteak, Euskal Konfederazioak, Ikasle Abertzaleak-ek, LAB-ek eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak. Egoeraren gaineko gogoeta egin ostean, nabarmendu zuten "D eredu euskalduntzea gaur egun ikasleen euskalduntzea bermatzen duen bakarra". Izan ere, sektore euskaltzale askok B eredu -lekuan lekuko nabardurak alde batera utzita ez dute nahikoatzen jotzen, elebitasun horrek ez diolako euskarari



behar beste tokia uzten. B ereduko umeen euskara mailetan gorabehera handiak izan ohi dira. 'Eskolak euskaldundu behar du' kanpainak hezkuntza sistema propioa aldarrikatzen du Euskal Herriarentzat, baita umeen euskalduntzea bermatuta egon dadila ere.






PORTZENTAJEAK

Gaur egun, Euskal Herriko zazpi probintzietako ikasleen %38k ikasten du D eredu. Bilbon portzentajea altuxeagoa da, %44 hain zuzen ere. Hala ere, azken urteotan D ereduaren igoera moteldu egin da Bilbon, B ereduaren mesedetan. Iaz, hiru urteko umeen artean 1.149 euskara hutsez ikasteko matrikulatu zituzten. Eredu elebidunean 1.201 haur apuntatu zituzten eta A eredu erdaldunean 221ek eman zuten izena. B eredu sare pribatuan da bereziki indartsua, D eredu publikoan nagusitzen den bitartean.

Begoñako elizate zaharrea D eredu da aukeratuena. Guztira gurasoek 459 ume D eredu ikasteko matrikulatu zituzten. Haur guztien %50. Atzetik, eredu elebiduna zeterren. Aita-amek 399 ikasle apuntatu zituzten B ereduko ikastetxeetan. Azkenik, A ereduak 35 ume baino ez zuen jaso eta urterik urte beharantz doa. Itxura baten, A ereduak galtzen dituen umeak B ereduak irabazten ditu.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59


SANTVTXV SPORT
Kiroiak
Punta-puntako kirol markak
SPORT
Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herraldea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

DOHAIN

Sinadura

KOLITZA (879 M.) PANDOZALES (BALMASEDA)


Balmasedako gasolindegitik esku-marantz irteten den errepidetik hiru bat kilometrotara Pandozales auzora helduko gara.

Errepidea amaitzen denean, eskuinean dagoen baserria inguratuz, ezkererantz abiatu beharko dugu. Laster ikusiko dugu Kolitza norabidea markatzen duen seinalea. Horma bukatzean, eskumarantz dagoen arbelezko bidexka (laburbide bezala) hartuko dugu, berriz zabalera heldu arte.

Hemendik jarraituz, eskuin eta ezkerretik dauden pistak utzita, zuzen joango gara larra batetik, etxola eta erdi eroritako korta bat aurkitu arte. Pistan Julian izeneko iturri bi ikusiko ditugu.

Bide berberetik apur bat aurrerago pinudi handi batean sartuko gara eta irtetean bidexka txiki bat ikusiko dugu. Julian izeneko beste iturri batera eramango gaitu. Berriz pista helduz, laster beste pista zabal batera helduko gara; pista hau Herbosa auzotik datorrena da eta La Garbea mendipetik pasatzen da.

Pista horrek eroso samar eramango gaitu Kolitza tontorreraino, baina guk beste bide gogor eta laburragoa aukeratu dugu. Horretarako bi biragune pasatu ondoren eskuinalderantz pinudi batera sartuko gara eta suebaki batera abiatuko gara. Hemendik tontorreko basiliza ikus daiteke. Beraz, zuzen igo behar da (879 m).



Goian dagoen basiliza oso polita da eta San Sebastian eta San Rokeri eskainita dago. Badirudi basilizaren eraikuntza 1111 urtean egin zela. Igoera hau ordu eta erdian egin dezakegu.


Sastrea PEDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO
 Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
 Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
 GABRIEL ARESTI, 30 4. G
 TXURDINAGA
 94 412 82 74

MESÓN
TURETXE
 Santutxuko poteo gunean

ASTEAZKENERO ZINEMAREKIN ZITA BEGOÑAKO UDALTEGIAN

Otsailaren 2tik aurrera Begoñako Udaltegia zinema bihurtuko da asteazkeneko arratsaldeko zazpi eta erdietan. Otxarkoagako Tular ikus-entzunekeo elkarteak antolatuta, hiruhileko programazioa prestatu dute datozen hiletarako. Programazioa gazteei dago zuzenduta batez ere, baina Aste Santurako umeentzako filmak ere proiektatuko dituzte Areto Nagusian jarri duten pantaila handian.



Testua: Arrate Diez
Argazkiak: BERTON

Auzoan zinema falta dago. Auzoko elkarteek egin duten eskaerari aurre egiteko asmoz, Udaleko Kultura eta Euskara sailatik filmen proiektzioa prestatzen lagundu du. Horretarako aurreko udazkenean Begoñako Udaltegian egindako Bidaiaren Txokoa izeneko programak neurgailu modura balio izan die, izan ere, bidaien inguruko pelikulak proiektatu zituzten. Egitasmo honek harrera oso ona izan zuenez, zinemaren inguruan beste pausu bat ematea erabaki dute, zinema inguruko programa egonkor bat osatzeari ekin diote, hain zuzen.


Programazioa hiruhilekoa izango da eta otsailean hasiko da. Lehen hiruhilekoan bi ziklo jorratuko dituzte: lehena autore zine modernoa eta bigarrena italiar zikloa. Aste Santuan 'Zinema lagun artean' izeneko

zikloa izango da, bereziki umeentzat zuzenduta. Azken honetan euskarazko filmak izango dira nagusi. Bigarren hiruhilekorako (apirila, maiatza, ekaina) duten erronka nagusia euskaraz sakontzea da, gazteentzako euskarazko filmak eskaintzea da.

Egitasmo hau udaltegia eta Tular-en arteko elkarlanaren ondorioa da. Programazioaren antolatzailea Tular ikus-entzunekeo elkarte da. Elkarte hau Otxarkoagako gazte elkarte da, zinemaren inguruan aritzen dena. Beraiek prestatu dute programazioa eta Kultur eta Euskara Sailak egitasmoa babestu du.

PANTAILA HANDIAN

Oraingoan zinema pantaila handian ikusteko aukera



eskainiko dute. Begoñako udaltegi-ko areto nagusia egokitu dute benetako zineman moduan egoteko. Pantaila handi bat jarri dute proiektzioak edo eta filmak formatu handian izan daitezten.

Programatutako filmak gazteei zuzenduta daude gehien bat baina baita jende helduarentzat ere. Honez gain, Aste Santuan eta gabonetan sesio bereziak egingo dira familientzat. Lau sesio izango dira Aste Santuan eta beste lau gabonetan. Hauek goizetan izango dira eta gehien bat euskaraz.

Begoñako barrutian lehen aldiz martxan jarri den egitasmoa dugu hau baina dagoeneko Mahatserriko Otxarkoagako barrutiak honelako zinema emanaldiak antola-

tzen ditu astelehenero.

ZINEMAZ GOZATZEKO

Laugarren barrutiko gizarte eta kultura programatzaileak dioenez, lau dira bete nahi dituzten helburuak. Batetik, jendearen topagune bihurtzea nahi dute, zinemaren inguruko topagunea izanik. Bertan, jendeak edukiak jasoko ditu eta, era berean, iritzi trukaketa bultzatu nahi dute. Bestetik, zinema kontsumitzeko zein zinemaz gozatzeko ohitura sortu nahi dute Bolueta, Santutxu eta oro har, Begoñako artean. Honez gain, kalitatezko programazioa eskaintzea eta barrutian izan den eskaerei egonkortasunez erantzutea lirateke programa honek dituen beste helburu biak.

PROGRAMAZIOA

OTSAILA
Zikloa: Autore Zine Modernoa
2: "Monster"
9: "La mancha humana"
16: "El último samurai"
23: "La sonrisa de Mona Lisa"

MARTXOA
Zikloa: Italiar zikloa
2: "Mediterráneo"
9: "No tengas miedo"
16: "Troya" (ordua: 19:00etan)

ZINEMA LAGUNARTEAN
Aste Santuan
Begoñako Udaltegian
Ordua: 11:30etan

Martxoaren 29an:
"Glup, una aventura sin Desperdicio" (Euskaraz)
Martxoaren 30an:
"Spy Kids" (Euskaraz)
Martxoaren 31an:
"Pinocho 3000"
Apirilaren 1ean:
"Alhambra Giltza"



GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Bihotzekoa emongo deustu lehoiak holango sentimenduaz ikusten badozuz. Pentsa egizu oraindino onena etorteko dagoala.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Hara eta hona ibili ostean, azkenean mahatsorri. Hori da hori gero!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Edurra gustau bai, normala da. Baina gaua emoteko kotxea hartu eta Artxandara igon... larregi ez ete da izango?
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Etorkizuna ederto asmatzen ei dozu. Beharbada horoskopoa hau egiteko fitxatu beharko zaitugu...
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Mendi altuan edurre, bota sutara egurre... badakizu zelan dan hurrengo? Alaba galanten amak mutil zantarren beldurre!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Elur malutak zer diran ez dozula jakin? Mara-mara esaera ez dozula egundo entzun? Bazan sasoa!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ligetako Viena leku gozoa izan lei. Bertara bazoaz, hautatu konpainia on-ona... eta aupa athletic!
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Aratustek hemen eta zeu mozorro barik. Hawaiianaz jantzi baino hobeto eskimalaz. Gitxiago ligatuko dozu baina sikan bizirik ailegako zara etxera!
- Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Jaietan denok jai! Lelo hori bidezkoa da, duda barik. Baina zeugaz jai dekogu jaietan eta aste barruan. Ganora apur bat, mesedez!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Ez itsutu, gero. Hainbeste urte emon dozuz zenbaki horiek primitiban ipinten eta ez dozu behin be saririk irabazi. Ez da izango primitiba egiten ixteko sasoa?
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra,
Edurra, hotza kalean, negu gogorra herri puta hontan, bizitzak emandako plazer txiki hauengatik ez balitz! Norbait erotuta badabil hortik gu zuzendu nahiez bainan... Hertzainek argi esan euskuen!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Buskaintza, txorizo, inddaba, ... ondo jateko sasoa da. Dana ez da txarra neguko hotzean, ezta?

agenda

OTSAILAREN 1ETIK AURRERA
MASAJE IKASTAROA BEGOÑAKO UDALTEGIAN. 19:30ETATIK 21:30ETARA. ASAPALAK ANTOLATUTA.

OTSAILAREN 3TIK 8RA
BILBOKO ARATUSTEAK.

OTSAILAREN 4TIK AURRERA
YOGA IKASTAROA BEGOÑAKO UDALTEGIAN. 19:00ETATIK 21:00ETARA. ASAPALAK ANTOLATUTA.

OTSAILAK 4
SANTA AGEDA BEZPERA.SANTA ESKEAK AUZO GUZTIETAN.

OTSAILAK 11
'HIPPIYEN MENDEKUA'. JON PLAZAOLA ETA MACREA. ARBIDEA KALEKO AEK EUSKALTEGIAN. 20:00EAN. ASAPALAK ANTOLATUTA.

OTSAILAK 13
SANTUTXUKO INAUTERIETAKO DESFIILEA.

OTSAILAK 13-16
'COCIDITO MADRILEÑO'. ARRIAGA ANTZOKIA.

OTSAILAK 23
ANDONI EGAÑAK 'HOGEITA BINA' LIBURUAZ BERBA EGINGO DU. ARBIDEAKO AEK EUSKALTEGIAN. 20:00EAN. IRAKURLEAREN TARTEA.

A
U
R
R
E
M
A
T
R
I
K
U
L
A
Z
I
O

K
A
N
P
A
I
N
A

Resultados académicos ✓
Plurilingüismo ✓
Equipamientos e infraestructura ✓
Profesorado y metodología ✓
Valores humanos ✓

✓ Emaizta akademikoak
✓ Eleaniztasuna
✓ Baliabideak eta azpiegitura
✓ Irakasle goa eta metodologia
✓ Giza baloreak



¿Calificación?

Excelente

Emaitza?

Bikain

Si vas a cumplir 16 años, tienes que buscar un centro para realizar tu bachillerato: **Begoñazpi Ikastola**. Disponemos de los medios y profesionales ideales para tu formación. Los excelentes resultados de nuestros/as alumnos/as en bachillerato y selectividad nos avalan. Es hora de hacerlo. ¿No crees? **Infórmate.**

16 urte betetzear bazagoz, batxilergoa egiteko ikastetxea aukeratu behar dozu. Hemen dozu: **Begoñazpi Ikastola**. Zure formakuntzarako beren beregiko ballabide eta profesionalak daukagu. Gure ikasleen emaitzak batxilergoan eta selektibitatean abalaten gaitu. Ordua heldu jatzu, ezta? **Informatu zaitzez.**







Jesús Galindez, 15 · 48004 BILBAO · Tel.: (+34) 944 005 300
Fax: (+34) 944 005 301 · e-mail: ikastola@begonazpi.net · www.begonazpi.net

KARMELO IKASTOLA

SANTUTXUKO IKASTOLA GARA

Menendez Pelayo 12-14 48006 Bilbo
Tfnoa: 944333001 e-mail: 014510aa@hezkuntza.net
www.karmeloikastola.com



Laster Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzarako kokapen eta eraikuntza berriak izango ditugu auzoan.
En un futuro próximo contaremos con nuevas instalaciones para Infantil, Primaria y Secundaria en el barrio.

- ➔ EUSKAL EREDUA IKASTOLA PUBLIKOA
- ➔ 40 URTE EUSKAL IRAKASKUNTZA BERMATZEN
- ➔ 2 URTEKO GELAK
- ➔ INGELESA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK 4 URTETIK AURRERA
- ➔ JANTOKIA ETA AUTOBUSA
- ➔ ORDUZ KANPOKO JARDUERAK EUSKERAZ
- ➔ AUZOKO BIZITZA ETA EKINTZETAN PARTAIDE ETA BULTZATZAILA